

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11410 26/2012 Errege Lege Dekretua, irailaren 7koa, Defentsa Ministerioaren aurrekontuan ezohiko kreditu bat ematen duena, armamentu programa bereziei dagozkien obligazioak ordaindu ahal izateko, dagoeneko eginda dauden entregengatik.

Errege lege-dekretu honen helburua da Defentsa Ministerioaren aurrekontuan ezohiko kreditu bat ematea, armamentu programa bereziei dagozkien obligazioak ordaindu ahal izateko, dagoeneko eginda dauden entregengatik.

Armamentu programa berezietan Defentsa Ministerioak erosten dituen arma-sistemarik garrantzitsuenak sartzan dira; eta garrantzitsuenak dira balio ekonomikoagatik eta planteatzen duten konplexutasun industrial eta teknologikoarengatik. Programa horiek erabakigarriak dira honako helburu hauek lortzeko:

- Indar armatuak modernizatzea eta Espainiak herrialde aliatuekin batera parte hartzen duen nazioarteko misioetarako gaitzea.
- Espainiako industria-sarea garatzea, teknologiarik leku nabarmena ematen dion industria-sarea, hain zuzen ere, gaitasun horiek esportatzeko nazioarteko merkatuetan lehiatzeko aukerak dituen.
- Balio eta gaitasun handiko lanpostuak sortzea, sektore zibiletara transferentzia teknologiko garrantzitsuak eginez.
- Nazioarteko lankidetzaren industrialak.

Programa horiek batera finantzatzen dituzte Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Defentsa Ministerioak, 90eko hamarkadaren amaieran diseinatutako finantziario-eredu baten arabera. Gaur egun 19 armamentu programa berezi daude. Programa horien zenbatekoak eta finantziario-profilak 2009an eguneratu ziren azkenekoak, eta 2025era arteko finantziario-profila ezarri zen.

2010eko eta 2011ko ekitaldietan, murrizketak eta baliabide ezak izan ziren aurrekontuetan, eta, ondorioz, ez zitzaizkien aurre egin urte horietarako onartutako ordainketa-konpromisoei; dena dela, egindako entregengatik kontabilitate nazionalen dagokion erregistroa egin zen. Ondorioz, ezohiko kreditu honek ez dauka eraginik defizit publikoan.

Programa horiei lotutako ordainketa-konpromisoei ezin zaienez aurre egin, Defentsa Ministerioak 1.782.777.890 euroko ezohiko kreditu bat eskatu du, armamentu programa berezien ondorioz industria nazionalarekin eta nazioarteko partzuergoekin sortu diren obligazioei aurre egin ahal izateko.

Era berean, Defentsa Ministerioak epe ertain eta luzera hartuta dituen konpromisoak gutxitzeko asmo sendoa dauka. Horretarako, jardueraren plan bat diseinatu du, eta plan horretan honako neurri hauek aurreikusi ditu: unitateak gutxitzea, entregak geroratzea, baldintzak berriz negoziatzea eta materiala saltzea. Plan hori martxan jartzeko beharrezkoa da ezohiko kreditu hau edukitzea; izan ere, nahitaezkoa da nazioarteko partzuergoetan Espainia bazkide fidagarritzat har dezaten, eta, halaber, industriei akordio globalak planteatu ahal izango zaizkie, etorkizuneko bideragarritasun industrialak duten planekin.

Ordainketa-konpromisoei aurre egin ezean, ondorio hauek izango lirateke:

- Prestakuntza handiko enpleguak eta gure industriaren esportazio ahalmena galtzea.
- Nazioarteko programen kolapsoa, eta, ondorioz, Espainiaren irudia kaltetzea.
- Nazioarteko misioetan parte hartzeko dugun gaitasuna mugatzea.

Administrazioak nahitaez erantzun behar die obligazio horien ordainketari, eta ordainketa ez da atzeratu behar, hirugarrenei kalterik ez eragiteko. Ezohiko eta premiazko arrazoitzat har daitezke horiek, eta errege lege-dekretu bidez ezohiko kreditua ematea justifikatzen dute.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Ogasun eta Herri Administrazioiko ministroak proposatuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorritik eta Ministro Kontseiluak 2012ko irailaren 7ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Defentsa Ministerioaren aurrekontuan ezohiko kreditu bat ematea.*

Ezohiko kreditu bat baimentzen da, 1.782.770.890 eurokoa, indarrean dagoen aurrekontuan, atal honetan: 14. sekzioa «Defentsa Ministerioa», 03. zerbitzua «Defentsako Estatu Idazkaritza», 122B programa «Modernizazio Programa Bereziak», 6. kapitulua «Inbertsio Errealak», 65. artikulua «Inbertsio militarrek eta azpiegiturak eta beste ondasun batzuk», 659 kontzeptua «Armamentu programa berezietan dagozkien obligazioak ordaindu ahal izateko, dagoeneko eginda dauden entregengatik». Hona hemen xehetasunak:

Azpikontzeptua	Izena	Zenbatekoa (eurotan)
659.01	EF-2000 abioia	1.171.607.690
659.02	Tigre helikopteroa	76.267.140
659.03	155/52 obusa	16.065.970
659.04	SPYKE misila	27.824.410
659.05	BAM ontzia	187.800.000
659.06	LEOPARDO tankea	242.337.280
659.07	IRIS-T misila	38.968.560
659.08	UME helikopteroa	21.181.310
659.09	CIS UME sistemak	718.530
	Guztira	1.782.770.890

2. artikulua. *Ezohiko kredituaren finantziazioa.*

Defentsa Ministerioaren aurrekontuan errege lege-dekretu honen bidez ematen den ezohiko kreditua zor publikoaren bidez finantzatuko da.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean sartzea.*

Errege Lege Dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean sartuko da indarrean.

Madrilen emana, 2012ko irailaren 7an.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY